

ERREPORTAJEA ETORKINEN ESKOLARATZEA · GEHIGARRIA GOTZON GARATERI ELKARRIZKETA  
KIROLA PATXI ARRIOLA EUSKADIKO OILAGOR EHIZA TXAPELDUNA

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A · 2003ko abenduaren 5a/XI. urtea/466. zkia

# BARRen

ASTEKARIA

"LUZIANOREN MARGOAK" ERAKUSKETA ABENDUAREN 5ETIK 21ERA

*Irudimenik ez duenak, hegalik ez du*

# HARZUBI JATETXEA

## SANTA LUZIAKO MENUA abenduak 13



- \* *Urdaiazpiko iberikoa*
- \* *Esparraguak 2 saltsekin*
- \* *Onddo, ganba eta zapoz heteriko bolobanak espinaka kremarekin*
- \* *Salda edo mariskoen krema*
- \* *Bakailaoa piperradarekin*
- \* *Entrekota plantxan*
- \* *Etxeko postrea*

Zuzeneko musika

abenduak 13, Drag Queen-a

Olaso Industrialdea · Olasope, 2 · Tel. 943 74 12 44 · 20870 ELGOIBAR · (Gipuzkoa)



Azken sarituak

OPARIEN EROSKETAK EGITERAKOAN KONTUTAN IZAN,  
AURTEN ERE, 15 €KO GASTUAGATIK  
TXARTEL BAT EMANGO ZAIZULA,  
ERREGE BEZPERAN EGINGO DEN  
**URREZKO BI ERLOJUREN ZOZKETARAKO**



MARI CARMEN LOPEZ



LUIS LLAMAS

**AURTEN ZU IZAN ZAITEZKE!!!**

San Frantzisko, 26 Tel./faxa: 943 74 25 35



# 40 URTE 40 ISTORIO



ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA



## ELGOIBARKO IZARRA eta UDALA

38

Udala eta Elgoibarko Izarra, Elgoibarko Izarra eta Udala. Horra euskalgintzaren gurdinari tira egiteko uztarri berean lotu ditugun bi idi. Biak beharrezkoak eta ezinbestekoak. Bata bestearen osagarri.

Elgoibarko Izarrari herritarrek ematen diote forma eta kolorea; herritarrena da, parte hartzailea. Herritarren inplikazioa bultzatzen du, eta lan boluntarioari egiten dio tokia. Herritarrek euskararekin dituzten sentimenduak eta nahiak konpartitzeko eta plazaratzeko espazioa da.

Udala, berriz, herritarrengandik hurreren dagoen administrazioa dugu. Herritarrek aukeratua. Herriaren interesak eta desioak administrazteko ardura daukana.

Elgoibarko Izarrak eta Udalak hasiera-hasieratik izan zuten elkarren berri. Dokumentu zaharretan begira jardun dugu, eta batetik besterako hamaika gutun ikusi ditugu. Batzuek benetan aspaldikoak dira. Elkarte, batez ere, Udalera bi helbururekin zuzentzen zela konturatu gara: batetik, jarduerak egiteko edo burutzeko baimena eskatzeko, eta, bestetik, diru laguntzak eskatzeko.

Elkartearen bigarren etapari ekin genionetik, berriz, Udala eta Elkartearen arteko harremanak asko sendotu eta sakonduko dira. Urtero sinatzen dugun hitzarmen ekonomikoaz gain, hainbat proiektu eta egitasmo jarri ditugu martxan elkarrekin. Badakigu batak bestearen beharra daukagula. Hori bai, bakoitzak bere autonomiari eta izaera propioari eutsiz.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiogu Udalari 40 urteotan Elgoibarko Izarrarekin izan duen jarreragatik. Laguntza handia jaso dugu Udaletik eta hau estimatzekoa da.

*Imanol Larrañaga*

iritzia



### Gutunik luzeena

Gutunak edo kartak idaztea ez omen dago modan. Denok dugu gustuko eskutitzak jasotzea, hori bai, baina idaztea... e-mailen eta telefono mugikorren aroan ia ahaztu zaigu boligrafoa hartu eta esan nahi duguna lasai-lasai paperean jartzea zer den. Hala ere, 2003a agortzen ari zaigun honetan gutunen sasoiari sartu garelako esango nuke.

Eguraldi hotzak oroimena esnarazi digula dirudi, eta egunotan Durangoko Azokan ikusiko ez dugun urrutiko lagun hari idazteari ekiten diogu. Edo Gabonak atarian ditugunez Urte Berri On! Zorionak! eta beste berba pare bat idazten dizkiegu ohiko lagunei.

Baina bada luzaroan mamitzen joan den gutun mota bat ere, oraindik amaitu gabe dagoena, hasieran barre egiteko gogoa eta ondo pentsatuz gero negargura sortzen diguna: etxeko txikiak Olentzerori edota Erregeei idazten dietena. Haien zatidazten ez jakitea ez da oztopo. Sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik. Laster topatzen dute eurek esandakoa paperera eramango duen idazkariren bat. Kontsumismotik urrundu nahi genituen, bestela hezi, eta bla, bla, bla... baina bai zera! Kontsumitzaile txikiak baina sutuak dira. Eta horren aurrean zer egin? Nola lortu folio biko gutuna lau lerrotara murriztea? Nola azaldu ezin ditugula guztiak etxera ekarri? Nola ulertarazi jostailu piloak zoriona baino anabasa ekarriko digula etxera? Jostailuei baino lehenago amaituko zaizkigu pilak askori...

Montse Arregi

Kexak .....	5
motZ MotZ .....	8
gehigarria .....	13
kiRolak .....	20
aGenda .....	24

## Urruzunoren begi ezkutua

### Hitzak I



Badira pertsona batzuk, esateko ezer izan ez arren, etengabean dihardutenak hizketan. Beste batzuk, ordea, isilik gelditzen dira ez dutelako norekin aritu. *Hizketa lagunik ez duenean bakarrik hitz egiten du sofitzen duenak edo neurriz kanpo gozatzen duenak*. Pertsonak askok, entzun arren ez dute aditzen, pertsona gehienek ez dute entzun ere egiten. Hitz egitea bai; denok atsegin dugu hitz egitea, baina besteek diotena... hori bestelako kontua da. Ozenago hitz egiteagatik hobetu ulertuko gaituztela uste dugu, bakarren batzuk uste dute gainontzekoak euren zaunkak deszifratzeko gai garela. Isiltasuna erabiliz komunikatzea beharrezko eta errazagoa litzaiguke askotan. Maite ditut oraindik orain isiluneen bidez komunikatzen dakitenak, begietara zuzen so eginez edozer aditzera emateko gai direnak, hitzik egin gabe.

Unai Villena

### EUSKAL HERRIKO NAZIOTASUN AGIRIA (EHNA)

Euskal Herriko Udal eta Udal Hautetsien Biltzarrak (UDALBILTZA) bultzaturik, Euskal Herriko Naziotasun Agiria (EHNA) bideratzeko, Euskal Herri osoko eskualde guztietan mahaiak jarriko dira abenduaren 13 eta 14an, oraindik ez daukatenek lortzeko aukera izan dezaten.

Mendaron ere aipatutako egunetan Udaletxeko bulego bat prestatuko da, hala nahi duenak bere agiria tramitatu ahal izateko. Bulegoaren ordutegia honakoa izango da bai zapatu, bai domekan: goizeko 10etatik eguerdiko 2ak arte.

Karneta lortzeko gaur egungo kolorezko 3 argazki original eta errolda agiria ekartzeaz gain, 12 euro ordaindu beharko dira.

Azkenik gogoratu nahiko genuke abenduaren 6an, 17:30etan 'Bai Euskal Herriari' taldeak deituta manifestazioa egingo dela Durangon, Liburu Azokaren paretik irtenda. Manifestazioaren leloa honakoa izango da "Ni naiz. Gu gara. Autodeterminazioa, Lurraldetasuna, Naziotasuna".

Enetz Ezenarro Arriola, NAN 15386270  
Mendaroko AUZOLANIAN herri plataformaren izenean

## ASTEKARIA

# BARREN

**Nafarroa enparantza, 2**  
20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12  
Publizitatea:  
☎ 943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04  
E-posta:  
barren@topagunea.com  
Helbide informatikoa:  
www.topagunea.com/barren  
ARGITARATZAILEA  
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Maite Uriarte PUBLICIZATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguren KOLABORATZAILERAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertru Koop. E. TIRADA 4.175 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.





 KEXAK


◆ Herriko lagun talde batek azaldu digunez, **Deba ibaiaren ertzean dauden zuhaitzak ez dira batere zaintzen**: ÒZuhaitzak landatzearekin ez da nahikoa, zaindu egin behar dira, bestela, zeruraino iritsiko dira. Garai batean oso txukun mantentzen zituzten, baina azkenaldian ez dituzte batere zaintzen. Oraintxe da zuhaitz horiek mozteko garairik onena, abendua edo urtarrila, beraz, garaiz gaude oraindikÓ.

◆ Urasandiko bizilagun batek azaldu digunez, **Urasandin ez dago aparkatzeko lekurik**: ÒUrasandin gero eta kotxe gehiago dago, eta ez daukagu aparkatzeko lekurik. Ahal dugun tokian aparkatzen dugu, nahiz eta gaizki aparkatu, kotxea inori trabarik egiten ez dion lekuan uzten saiatzen gara, eta multak jartzen dizkigute. Larunbatetan ordea, askoz kotxe gehiago egoten da traban, auzoan gora eta behera datozen bi kotxe ezin izaten dira gurutzatu, kotxeak errepidearen bi aldeetako espaloietan aparkatuta egoten direlako, baina gehienek ez dute multarik izaten. Lotsagarria da herritarrei goizeko ordu txikietan multak jartzea, eta kanpotarrei nahi dutena egiten uzteaÓ.

◆ Gazte koadrila batek esan digunez, **Urasandiko Ping-Pong mahaia dagoen lekuan argia falta da**: ÒHaur Eskolaren azpian dago ping-pong mahaia, eta iluntzen duenean ez da ezer ere ikusten. Neguan oso bizkor iluntzen du, eta ezin izaten dugu ping-pongean jokatu argirik ez dagoelako. Toki horretan argia falta da.

 TXALOAK

◆ Emakumea batek, **herriko komun garbitzaileak txalotu nahi ditu, komun publikoak oso garbi mantentzen dituztelako**: ÒLan txarra da, eta oso ondo betetzen dute. Herriko komun publikoak oso garbi egoten dira, eta garbitzaileek txalo bat merezi



# ÒEtorkinena kutsu politikoko

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean egiten du lan Alberto Agirreazaldegia elgoibartarrak. Ez du kargu politikorik, baina etorkinak eskolaratzeko gaietan aholkularia da. Hezkuntza Saileko hainbat programen koordinatzailea da: kultura arteko hezkuntza eta eskola inklusioa edo "guztientzako eskola" deiturikoa dira garrantzitsuenak. Ekintza nagusien diseinu, koordinazio eta jarraipenean hartzen du parte. Azken urteetan UZEIko zuzendaria izan ostean, duela urtebete eskaini zioten Jaurlaritzan lan egiteko aukera, lehenago ere ibilia baita irakaskuntza munduan. Oraindik lan berriaren nondik norakoak ikasten dagoela aitortu digun arren, Espainiako Gobernuarekin lehen hika-mika izan berri dute eskoletara bidali zituzten orientabide batzuk direla-eta. Espainiako gainontzeko komunitateetako ikasleak "etorkin" izendapenaren barruan hartu izana kritikatzeko dio Espainiako Gobernuak. Gai hau eta etorkinen eskolaratzearen inguruko hainbat gauza izan ditugu hizpide.*

## **Nola laguntzen diezue Eusko Jaurlaritzatik eskolaratu nahi duten haur atzerritarrei?**

Ahalik eta eskolaratze normalizatuen eskainiz. Guk geuk atzerrian nahiko genukeen tratu bera eskaintzea da helburua azken finean. Beraien buruak hemengotzat sentitzea nahiko genuke, baina beraiena errespetatuz.

## **Zein dira integrazioaren bidean dauden oztopo nagusiak?**

Kultura, janari, erlijio ezberdinak edukitzea oztopoak dira, baina bertako hizkuntzak ezagutzea ezinbesteko tresna da edozein hezkuntza sistema eta gizartetan integratu eta bizitzeko.



Euskara errefortzu saioetan parte hartzen ari diren etorkinak..

Gainditu beharreko beste zailtasun nagusi bat bertakoen aurreiritziak dira. Batzuen ustez ez zaie laguntzarik eman behar etorkinei, baina ikasle asko egoera sozial baztertua eta desberdintasun sozialeko baldintzetan bizi dira eta eskolak, bere eremuen, egoera hori gaingitzen saiatu behar du. Denentzako moduko eskolak egin behar ditugu, itsu batentzat izan daitezkeen

**"Etorkinek euskaraz hitz egiten ikasten ez badute ez direla egoera normalizatu batean bizi uste dugu"**

moduan etorkin batentzat ere izan daitezke. Txipa aldatu eta integratzeko erraztasunak eman behar dizkiegu. Kultura arteko hezkuntzan landu behar dugu mundu hau anitza dela ulertaraziz. Atzerritarrek egotea aberasgarria da, bestean ikuspegia aldatu eta janzteko balio baitute. Gizartea aldatzen ari da eta bihar edo etzi lanean edo tabernan elkartuko direla jakin behar dute.

## **Nolakoa izan behar du integrazio prozesuak?**

Ez da geureganatzea gisa planteatu behar, integrazioak gizarte honetan bat gehiago izateko ahaleginak eta baliabideak jartzean datza. Bakoitza nahi duen modukoa izango da, baina egoera berdinean eta eskubide berberekin. Kultur artekotasun



hezkuntzak hau bera adierazten du; kultura batek ez du bestea gaingitu edo jan behar, kultura ezberdinek elkarrekin bizi behar dutela baizik. Eta hortan dihardugu.

## **Gazteleraz eta euskaraz egiten irakatsi behar zaie etorkinei?**

Bai. Euskaraz hitz egiten ikasten ez badute ez zaigu iruditzen egoera normalizatu batean bizi direnik. Lekuaren arabera gehiago edo gutxiago hitz egiten da euskaraz, baina etorkinak euskararen garrantziaz jabetu behar dira. Jaurlaritzak ikasteko aukerak eta laguntza eskaini behar ditu. Gauza bera gertatzen da gaztelerarekin, baina errazago ikasiko dutela pentsatzen dugu.

## **Euskadi guztian politika bera jarraitzen al duzue?**

Hiritan dago arazorik gehien; Bilbon eta Gasteizen eta hauen inguruko herrietan, A ereduan ikasten duten ikasle gehien baitaude inguruotan. Joera hau aldatu nahi dugu, betiere beraien askatasuna errespetatuz, euren onerako izango baita beste hizkuntza bat ikastea.



# ETORKINEN ESKOLARATZEA

## eztabaida artifiziala izan daÓ

### Elgoibarren zer mailatan gaude?

Elgoibarkoa moduko gizarteetan etorkinen presentzia oraindik ez dela gehiegi nabaritzen ikusten dut. Ez beste toki batzuetan adina, behintzat.

### Etorkin hitzaren erabilerak eztabaida handia sortu du azkenaldian, ezta?

Bai, gehiegizkoa. Hezkuntza Saitetik orientabide batzuk bidaltzen ditugu ikastetxeetara. Hauetako bat epez kanpo eskolaratzen diren etorkinen ingurukoa zen. Instrukzio hauen hasieran hemengo hezkuntza sistematik kanpo datorren edozein ikasle dela etorkina aipatzen zen, baina guk inoiz ez dugu esan Cacereseakoak edo Valentziakoak etorkinak direnik. Kanpotik jendea esaten ari dena da hori. Hitz horrekin sartu dira

baina hanka sartu dute. Ondo erabilia dagoelako eta beraiek ere erabiltzen dutelako. Gauza bitxia da, *Espainiako Real Academia De La Lengua*-k berak esan baitu guk erabili dugun testuinguruan ondo esana dagoela etorkin hitza.

### Zergatik sortu da eztabaida hau?

Eztabaida artifiziala izan da, etorkin hitza erabiltzearena anekdota bat izan da, baina atzean beste arrazoi politiko batzuk daude. B eta D ereduaren alde egiten genituen gomendioak, esaterako, ez zitzaizkien gustatu. Guretzat, berriz, bazterketaren aurkako aukerarik argienak direla iruditzen zaigu, integrazio osoa ahalbidetzen baitute. Bestalde, Euskal Hezkuntza Sistema aipatu dugunean, ez dela existitzen aipatu dute, sistema bakarra omen dagoelako.

### DATUAK

- | Euskal Autonomi Erkidegoan 25.000 atzerritar bizi dira, biztanleriaren % 1,1a
- | Ikasleen %2a dira etorkinak, 6.000 ikasletik gora (2002. urte bukaeran).
- | Azken 3 urteotan urteko %40 igo da ikasle atzerritarren kopurua.
- | 2.010 urtean ikasle atzerritarren kopurua %5 izango dela aurreikusten du Eusko Jaurlaritzak, hau da, 16.000 ikasle etorkin inguru eskola adinean daudenak. (Urteko 1.500-1900 ikasle gehiago).
- | Beste erkidego batzuetan %8ra ere iristen da ikasle etorkinen kopurua, Madrilan, Bartzelonan edo Andaluzian.
- | Ikasle etorkinen erdia baino gehiago latinoamerikarrak dira.

### Etorkin baten iritzia



**TERESA GOMEZ** (32 urte) galiziarra da, Orenseko herri txiki batekoa. 2002. urteko ekainaren 23an iritsi zen Elgoibarrera Jonathan Espinosa 8 urteko semearekin batera. Senarra jadanik Elgoibarren zegoen, 7 hilabete lehenago etorri baitzen gure artera lan bila. "Semeak Lehen Hezkuntzako lehen ikasturtea bukatu arte itxaron, eta berehala etorri ginen. Galiziako egoera ez da kanpaiak jotzeko modukoa eta senarrak lana zuen arren, hemengo egoera hobea zela eta probatzea erabaki zuen".

Etorkinen inguruan azken aldiak sortu den eztabaidaren inguruan argi ditu ideiak Teresak, "Espainia barruan bizilekuz aldatu arren, inmigrantea zarena iruditzen zait. Ez da Kongotik etorriko banintz moduan, baina etorkina naiz. Ez naiz atzerritarra, baina bai etorkina. Ez naiz ofendituta sentitu. Inoiz ez naute etorkin gisa

sentiarazi. Oso jende jatorra ezagutu dut". Galiziarrek etorkin tradizio handia duten arren, Teresak ez zuen uste bere sorterritik atera beharrik izango zuenik, "Nire familian 6 anai-arreba gara eta inori ez zaio inmigratu beharra tokatu. Ni neu harrituta nago oraindik, ez baitut sinisten hemen nagoenik".

Semea nahiko ondo moldatu dela aipatu digu, "euskararekin izan du arazo gehien, baina osterantzean edozein tokitan oso ondo moldatzen den mutikoa da. Hori bai, hasieran negar egiteaz nazkatu zen, Galizian oso ondo zegoela eta ea zergatik ekarri genuen hona galdetzen zigun. Pilar Ikastetxeko irakasleek laguntza izugarria eman diote. Euskara errefortzuzko klaseak ere oso ondo etorri zaizkio eta hobeto moldatzen da jadanik. Hemen geratzeko ideia dugunez, semeak euskara ikastea beharrezkoa dela deritzogu".

## Jende gutxi hartu du parte HIESaren astean antolatutako ekintzetan

Errotatxo Elkarteaz gain, Biluzik, GAZ-T eta Atxutxiamaikak ere antolatu zituzten ekitaldiak



Hainbat ekitaldi egin ziren HIESaren Nazioarteko Eguna ospatzeko.

**A**banduaren 1a HIESaren Nazioarteko Eguna izanik, ekitaldi desberdinak antolatu ziren aste osoan zehar. Elkarte desberdinak inplikatu ziren, eta ÒBazterketarik ezÓ lemapean, denetariko ekintzak antolatu zituzten. Azaroaren 29an, gaztelu puzgarriak eta Atxutxiamaika Aisialdi Taldeak antolatutako tailerrak izan ziren. Musikaz animatu zuten giroa, izan ere, eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, eta haur gutxi inguratu ziren plazara. Arratsaldean, Errotatxo eta Biluzik Sexologia Zerbitzuko kideek, sex-txokoa antolatu zuten. Kingkong-en mahai informatibo bat jarri, eta gazteen galderak erantzun zituzten.

Bitartean, hiru lagun kondoiz moztortuta kalean aritu ziren gazteei HIESa eta sexuari buruz informatu eta kondoiak banatzen. Eli Moreno, Biluzikeko arduradunak azaldu digu ekintza hauen zergaitia: ÒAzken ikerketek diotenez, GIB birusaren transmisioa bikote heteroetan eta koito harremanen bitartez ematen ari da. Hau dela eta, HIESari aurre egiteko dauzkagun moduak bultzatu nahi izan ditugu, arriskurik gabeko sexu jokabideak eta kondoien erabilera, alegiaÓ.

### HIESaz hildakoei omenaldia

Errotatxok antolatuta HIESak jota hil diren elgoibartarrei omenaldia egin

zitzaien azaroaren 30ean. Heriotzak asko izan diren arren, jende gutxi hurbildu zen Plaza Handira. Aurrekua dantzatzuz, Haritz Dantza Taldekoek eman zioten hasiera ekitaldiari. Ondoren, HIESaren eguneko manifestua irakurri zen, eta azkenik 10 minutuko kontzentrazioa egin zuten. Bide batez, orain arte Errotatxoko arduradunak izan diren Amaia Martinez de Bujo eta Cameliak ere, jaso zuten omenaldia, eta egungo arduradunen eskutik, lore sorta bana jaso zuten.

Honetaz gain, beste hainbat ekitaldi ere izan dira, baina orokorrean, oihartzun txikia izan du HIESaren asteak Elgoibarren.

## Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak urteko Batzar Orokorra egin zuen



Elgoibarko Izarrako proiektu arduradunek eman zituzten azalpenak Batzar Orokorrean.

**E**lgoibarko Izarra Kultur Elkarteak, urteko Batzar Orokorra egin zuen joan zen astelehenean, abenduaren 1ean, Kultur Etxeko Hitzaldi Gelan. Aspaldiko partez, bazkide dezente hurbildu ziren batzarrera, eta Be-at Bilbao Elkarteako presidentek, eskertu egin zien bertara agertu izana.

Batzarraren helburua, bazkideak Elkarteak azken berrikuntzen gainean informatzea zen, eta halaxe egin zuten. Presidentearen agurraren ondoren, Imanol Larra-aga Elkarteak

dinamizatzaileak hartu zuen hitza, eta Elgoibarko Izarraren estruktura berria azaldu zien bazkideei. Ondoren, proiektu bakoitzeko arduradunen txanda iritsi zen. Bakoitzak bere proiektuaren gaineko informazioa eskaini zuen, eta 2004. urterako ezarritako helburu garrantzitsuenak aipatu zituzten. Bukaeran bazkideek galderak egiteko aukera izan zuten, eta aurrerantzean ere, beraien zalantzak erantzuteko prest daudela azaldu zuten Elgoibarko Izarrako arduradunek.



## Einbiou Herri Plataformako kideek demokrazia aldarrikatu zuten

Einbiou Herri Plataformako kideek, Elgoibarko Udalaren demokrazia eza salatu, eta 1000 elgoibartarren eskubideak aldarrikatu zituzten joan zen ostiralean, azaroaren 28an Plaza Handian.

Udal Hauteskundeak egin zirenetik 6 hilabete pasatu dira dagoeneko. Einbiouko kideek ondorengo aldarrikapenak egin zituzten, besteak beste: ÒElgoibarko udaletxean ez dago oposizioerik, oinarritzko eskubideen urraketa gero eta nabariagoa da, eta Udalak ez dauka egoera ez demokratiko hau konpontzeko asmorikÓ.



ÒEz apartheid, demokrazia Euskal HerriarentzatÓ lemapean, Elgoibarko udaletxea inguratu zuten demokrazia aldarrikatuz. Ondoren, kontzentrazioa egin zuten udaletxeko arkupeetan.

## Aurten urrezko ezteiak bete dituzten 10 bikote omendu zituzten jubilatuen astean

Jubilatuen astea ospatu zen joan zen azaroaren 25etik 30era bitartean, eta ekitaldi desberdinak antolatu ziren. Besteak beste, txokolatada, kina berezia eta Gabonetako 40 otarren zozketa. Ospakizun bereziena, ordea, joan zen ostegunean, hilaren 27an, egin zuten bazkaria izan zen. Bertan, aurten urrezko ezteiak bete dituzten 10 bikote omendu zituzten. Honakoak dira omendutako senar-emazteak: Juan Luis Etxabe eta Josefa Salegi, Agustin

Garitagoitia eta Jesusa Odria, Joxe Zubizarreta eta Maria Agirre, Anacleto Fernandez eta Victoriana Gomez, Angel Arozena eta Maria Teresa Usobiaga, Hijinio Luis Jauregi eta Maria Teresa Etxaniz, eta Pedro Salinas eta Francisca Pardo. Azkenengo bi bikoteak Pablo Alvarez eta Elena Aipzurua, eta Bizente Lariz eta Catalina Iriondo ziren, baina arrazoiak arrazoi ezin izan zuten ospakizunera joan.



Azkue

## Udalak euskarazko produktuen katalogoa banatuko du

Euskara biziberritzeko egitasmoaren barruan eta Gabonetako opariak euskaraz egiteko kanpainaren barruan, euskarazko produktuen katalogoaren 4.500 ale banatuko ditu Udaleko Euskara Sailak herritarren artean.

Katalogo honetan euskaraz ekoizten den musika, informatika materiala, filmak, liburuak, aldizkariak, jostailuak, jokoak edota web helbideak agertuko dira. Euskaraz bizitzen laguntzeko asmoz egindako katalogoa da, euskaraz jolasteko, ikasteko eta gozatzeko lagungarri izango diren produktuen berri ematen duena.

Kanpaina honen bidez hizkuntzaren transmisioan eragin nahi da, gurasoei euren seme-alabentzat interesgarriak izango diren produktuen berri emanez.

Katalogoa, bestalde, Elgoibarko Udalaren webgunean ikusgai dago. Interesatuak, [www.elgoibar.org](http://www.elgoibar.org) helbidean aurkituko dute.

## Kultura Sailak herriko elkartei dei egiten die dirulaguntzak eskatzeko

Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak zera jakinarazi nahi die 2003 urteko dirulaguntzen bigarren zatia eskatu nahi duten herriko kultur elkartei: dagoeneko irekita dagoela jardueramemoriak aurkezteko epea. Era berean, Kultura Sailak adierazi nahi du irekita dagoela 2004 urtean kultur jarduerak antolatzeko dirulaguntzak eskatzeko epea. Edonola ere, eskatutako agiriak aurkezteko azken eguna abenduaren 19a izango da.

Gai horien inguruko informazio zabalagoa nahi dutenak Kultura Sailarekin jarri beharko dira harremanetan. Horretarako 943 74 21 58 telefono zenbakira deitu beharko dute, edo bestela, [kultura@elgoibar.org](mailto:kultura@elgoibar.org) helbidera mezu elektronikoko bat bidali.

## Abenduaren 3an, asteazkenean, Euskararen Nazioarteko Eguna izan zen ZEIN DA EUSKARARI IKUSTEN DIOZUN ETORKIZUNA?



### NEREA LARRAÑAGA

24 urte, euskara  
sustatzailea

Euskararen egoera ÒbeltzaÓ da. Euskaraz dakitenak gero eta gehiago dira, baina erabiltzaileak gero eta gutxiago. Gainera, gazteen euskara-kalitatea jaitsi egin da.

### JOSE MARIA EGIGUREN

69 urte, jubilatua

Kontrarixo haudixak dauzka euskeriak, baina euskaltzaliok bat einda, aurrera eingo dau. Asko gera, ta defentsia eukikou. Esperantzarik ez da galdu bihar.



### KONTXI AGIRREGABIRIA

37 urte, komertziala

Zaila. Ikastolek gero eta arazo handiagoak dituzte dirulaguntzak lortzeko, eta gazteek kalean ez dute euskara erabiltzen. Batez ere, 15-18 urte bitartean, gehiago erabiltzen da euskara.

### IÑAKI ITURBE

44 urte, komertziala

Zaila eta gogorra. Espainiar instituzioek euskararen kontra egiten dute, hizkuntza galtzeko. Denon artean sakatu, euskara erabili eta aurrera egin behar dugu.



### BEGOÑA DOMÍNGUEZ

25 urte, sukaldari  
laguntzailea

Jendeak erabiltzen du, hurrek batez ere, eta hurrekin etorkizuna ziurtatua dago. Ni ikasten ari naiz, ea egunen baten euskaraz hitz egitea lortzen dudana.

### JOSE LEON

66 urte, jubilatua

46 urte daramatzat Elgoibarren, eta oraindik ez dut euskara ikasi, eta orain pena daukat. Hala ere, kalean jendeak hitz egiten du, eta aurrera egingo duela uste dut.



#### EUSKARA ERREFORTZUETARAKO

##### ESKATZEN DA:

- . 18 urte edo gehiago izatea. Elgoibar edo ingurukoa izatea
- . Ikaslea izan edota arratsaldeak libre edukitzea
- . Ahozko euskara maila ona
- . Komunikazio gaitasuna
- . Haur eta gaztetxoekin lan egiteko gogoia ( esperientzia baloratuko da)

#### BEGIRALEAK BEHAR DIRA

##### ESKAINITZEN DA:

- . Proiektu berri bateko partaide izatea
- . Ordaindutako lana izango da

Interesatuok ekarri edo bidali zuten kurrikuluma Elgoibarko Izarrara abenduak 15a baino lehen. Informazio gehiago nahi izan ezkerro deitu 943 74 16 26 ( Nerea Larrañaga)  
E-posta: [nerea.larra@elgoibarkoizarra.com](mailto:nerea.larra@elgoibarkoizarra.com)

## Atxutxiamaiak Aisialdi Taldeak negulekuak antolatu ditu

Datorren abenduaren 22, 23, 26, 29, 31, 31 eta urtarrilaren 2rako, negulekuak antolatu ditu Atxutxiamaiak Aisialdi Taldeak. Goizeko 10:00etatik 13:00etara, Elgoibarko Herri Eskolan izango dira. Interesatuak abenduaren 10etik 16ra eman ahal izango dute izena Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen (Ubitarte 4, behe). Negulekuen prezioa 25 eurokoa izango da. Informazio gehiago 943 74 16 26 (Nerea O-ederra) telefonoan jaso ahal izango da.

### Laburmetraia ikastaroa

GAZ-T Aisialdi Taldeak bestalde, Laburmetraia Ikastaroa antolatu zuen. Bi larunbatetan, sei gazte eta begirale bat Kultur Etxean elkartu ziren laburmetraiak ekoizten



ikasteko. Gidoi bat prestatu, eta grabazio bat egin zuten kamaraz, partaide bakoitzak paper desberdin bat interpretatuz. Egun gutxi barru, bakoitzak bere gidioa eskuratuko du. Antolatzaileek esan digutenez, oso ondo pasatu dute, eta oso gustura ibili dira.

## ESKOLA KIROLA

### EMAITZAK

5. Jardunaldia

#### FUTBOLA, Mintxetan

##### ■ Infantil mutilak ■

*Ikastola A 2 - Ikastola B 8*

*BHI A 8 - Pilar B 3*

*BHI B 10 - Pilar A 0*

##### ■ Infantil neskak ■

*BHI A 5 - Ikastola A 2*

*Pilar A 4 - Pilar B 1*

#### ESKUBALOIA, Kiroldegian

##### ■ Benjaminak ■

*Ikastola D 2 - Pilar B 0*

*Ikastola C 1 - Pilar A 0*

*Ikastola A 0 - Pilar C 2*

*Ikastola B 0 - Herri Eskola A 2*

*Herri Eskola B 2 - Mendaro A 0*

*Herri Eskola C 0 - Mendaro B 1*

#### SASKIBALOIA, Herri Eskolan

##### ■ Alebin mutilak ■

*Ikastola B 30 - Herri Eskola A 6*

*Mendaro A 40 - Ikastola A 10*

*Pilar A 7 - Pilar B 74*

##### ■ Alebin neskak ■

*Herri Eskola A 28 - Ikastola A 10*

*Pilar A 2 - Pilar B 34*

## Bederen Antzerki Taldeak "Bakartxo" obra aurkeztu zuen Institutuan



Bederen Antzerki Taldeak, Idoia Etxeberriak idatzitako ÒBakartxoÓ obra aurkeztu zuen Elgoibarko Institutuko areto nagusian, Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleentzat. ÒBakartxoÓ obrak Zarauzko Olerti Etxearen Bakarriketa Lehiaketan lehenengo saria jaso zuen. Ainhoa Alberdi izan zen antzezlaneko bakarriketaren protagonista, eta antolatzaileek esan digutenez, emanaldi paregabea eskaini zuen.



**NEGULEKUAK**

**HAUR HEZKUNTZA eta LH 1-2-3**  
Txiki parkera irteera, jolasak, eskulanak...

San Bartolome, 6

 Boutique del Pan

**Boutique del Pan**  
**Okindegia**

- Artisau-ogi mota ezberdinak
- Tartak
- Opilak
- Pastelak
- ...

**Mota ezberdinetako tartak enkarguz!**

Telf.: 943 741107



# AZAROA

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz **barren@topagunea.com** helbide elektronikora.

## HILDAKOAK

**Jesus Arce Mara-on,**  
82 urte, azaroak 4

**Jesusa Garayalde Istilart,**  
75 urte, azaroak 8

**Jesusa Barrenetxea Osoro,**  
87 urte, azaroak 8

**Julian Zubiaurre Celaya,**  
48 urte, azaroak 23

**Eulogia Arzuaga Anduaga,**  
95 urte, azaroak 20

**Lorea Etxabe Azkue,**  
30 urte, azaroak 26

## JAIOTAKOAK



**Lore Iriondo  
Unamunzaga**  
Urriak 30  
Agurtzane eta  
Jesus Mari



**Eneko Rodriguez  
Garcia Pascual**  
Azaroak 8  
Raul eta Vanessa



**Naroa Ortega  
Valenciano**  
Azaroak 10  
Francisco eta Idoia

**Suyay Charles  
Alejandre**  
Azaroak 4  
Ruben eta  
Mercedes


**Shahmeer  
Khokhar Awan**  
Azaroak 16  
Mazhar Hussain  
eta Kubra Bibi

# ETXEBERRIA

## Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

### KUTXAK · TRASLADOAK · KOROAK



**NORBANAKOEI  
eta KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak.**

**Donostia eta  
probintziako  
erietxe zentroetan  
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56


(Mobila) 608 77 07 01

2003ko abendu/XI. urtea/468. zkia  
G E H I G A R R I A  
H I L E K O  
E L K A R R I Z K E T A

# BARRREN

ASTEKARIA

# elkarrizketa



GOTZON GARATE GOIARTZURI ELGORBARRIEN JAIO ZEN 1934AN. FILOSOFIA DOKTORE TITULUA ESKURATU ZUEN MADRILGO UNIBERTSITATE COMPLUTENTSIAR. TELOGIAN LIZENTZIATU ZEN INSBROKOKO UNIBERTSITATEAN ETA FILOLOGIA ERROMANIKOKO LIZENTZIADUN TITULUA JASO ZUEN BILBON, DEUSTUKO UNIBERTSITATEAN. ONDORREN MARXISMOAN ESPEZIALIZATU ZEN SUITZAN FERRANON BI URTE IKASTEN EGIN ONDORREN. MARXISMO IRANASTE ZAN ON HAINBAT KARRERATAN, HALA NOLA, SOZIOLOGIA, KOMERTZIALEAN ETA HISTORIAN. 1978AN EUSKAL FILOLOGIAKO IKASKETAK SORTU ZITUEN BILBOKO DEUSTUKO UNIBERTSITATEAN. EUSKAL LITERATURAN KATEDRADUNA DA ETA BERE AZKEN URTEAK HORREN GAINEAN EGIN DITU. LIBURUAK, ARTIKULUAK, HITZALDIAK,... ZABALA DA GOTZON GARATEK EUSKARARI EGINDAKO EKARPENEA. 1967TIK ZAZPI PROBINTZIETAKO 23 BASERRITAN ARITU DA, HAN ETA HEMEN BASERRITARREN AHOTIK EUSKARAREN ALTXORRIK PREZIATUEVA JASOTZEN.

Gotzon Garate

"HORI DA NIRE BIZITZAKO EGINKIZUNA. EUSKARARI LAGUNTZEA."

BILBORA EGIN DUGU BIDAIA. DEUSTUKO UNIBERTSITATEAN ELKARTU GARA. HANDIA ETA DOTOREA DA. EHUN URTE PASAKO HISTORIA DUEN ERAIKINA DA. KLAUSTROA ETA HAMAIKA PASABIDE ZEHARKATU DITUGU GOTZON GARATEREN BULEGORA IRITSI ARTE. ORDU ETA ERDIZ EDO ARITU GARA IDAZLE ETA IRAKASLEAREN BIZITZAREN GAINEAN. EUSKARAREN MAISU HANDIAK BERE URTEETAKO JOAN-ETORRIEN BERRI EMAN DIGU ETA LILURATU EGIN GAITU.



## Gotzon Garate

# “Euskaraz dakitenek erdaraz

### ► Elgoibarren jaio zinen. Zein zen orduko giroa?

Gu jaio ginenean, 34an, Elgoibarren ez zegoen ia erdaldunik. Niretzat oso garrantzitsua da hori. Ni oroitzen naiz, Elgoibarren bi edo hiru familia famatu eta gero Guardia Zibilen seme-alabak zeudela. Baina beste denak euskaldunak ginen. Giroa benetan euskalduna zen. Zoritzarrez, Gerra ondoko urteak zirelako, eskola erdaraz egin nuen, baina bestela giroa euskalduna zen.

### ► Zure bizitzako lehen urteek zelako eragina izan zuten egun daukazun bizimoduan?

Nire bizitzan oso garrantzitsua izan zen Durangora kolegiara. Oñternojoan joan nintzeneko garaia. 12 urterekin ez neukan euskal kontzientziarik. Euskaldunak ginen eta gurasoek sekula ez zioten elkarri hitzik erdaraz esan, baina gure etxean ez zegoen euskal kontzientziarik. Nik, jesuita nintzela, esaten nuen euskara edo espainola galdu beharko banu dudarik gabe espainola galduko nuela. 12 urterekin Durangon oso lagun abertzaleak izan nituelako izan zen hori. Orduan pentsatu nuen: ni bide honetatik noa. Eta geroztik beti euskararen alde aritu naiz.

### ► Beraz euskara izan duzu oinarri.

28 liburu idatzi ditut, 27 euskaraz, bat bakarra erdaraz, tesia, Madrilen agertu behar nuelako. Hori izan da nire bizitza, Jaungoikoa eta euskara. Lagunek New Yorken ere esaten zidaten, hizkuntza bat beharrezkoa ez bada galdu egiten da. Hemen erdara da beharrezkoa. Euskara galtzeko oinarritzko argumentua da ez dela beharrezkoa. Gainera, problema hori ugaltu egingo da etorkinekin. Guk daukagun problema ez daukate beste nazioetan. Alemaniara joaten direnek alemana ikasten dute, baina hona etortzen direnek espainolez ikasten dute. Nire asmo guztiak horiek dira, euskara aberastu eta mardultzea. Hori da nire bizitzako eginkizuna. Euskarari laguntzea.

### ► Nola sartu zinen apaizgoan?

Nire anaien lagun jesuitek galdetu zidaten jesuita sartu nahi nuen eta baietz erantzun nien. Orduan, 19 urterekin hasi nintzen euskaraz idazten, eskolan debekatuta genuelako. Nik Frankoren urte oso eta beteak harrapatu nituen. Euskara debekatuta zegoen. Nire lehenengo artikulua Euzko Gogoan idatzi nuen, Guatemalan ateratzen zen aldizkaria, Jokin Zaitegi nagusi zela. Guatemalatik iparraldera eramaten zuten eta gero ezkutuan mugan pasatzen zuten. Horren zain egoten ginen. Kruwithen Baskonia ere irakurtzen genuen.

### ► Nola uztartzen da dena?



“ATSOTITZAK GALDU EZ  
DAGO ATSOTITZETA



# az egiten dutela ikustea da problema gogorrena”



## NEKO ALTXORRADIRA. FILOSOFIA HANDIA N, ESANAHIA OSO ZENTZUZKOA DA”

Teologia karrera egin eta apaiz egin nintzen 32 urterekin. Karrera amaitu eta Marxismoan espezializatzeko esan zidaten. Nagusiek esan zidaten: Òzu Gotzon Deustuko irakaslea izango zaraÓ. Orduan, orain 36-37 urte, Komunismoak Europa osoan indar handia zeukala ikusi zuten. Friburgen bi urtez Marxismoa ikasi eta Deustuko unibertsitatera etorri nintzen, Marxismoa erakustera. Soziologian, komertzialean eta gero Historian ere erakusten nuen.

### ► Noiz sortu zen Euskal Filologia?

Irakasten hasi eta Marxismoaren interesa galdu egin zen. Nik eskolak eman bitartean egina neukan Deustuan Hispaniar Filologia eta orduan esan nuen Óhau da Euskal Filologia sortzeko garaiaÓ. Garai hartan Ingeles Filologia, Alemaniar Filologia, Hispaniar Filologia eta Frantses Filologia zeuden. Nik beti esaten nion erretoreari: hau ez zait ondo iruditzen, alegia, Euskal Herrian Euskal Filologia ez egotea. Beti luzapenak ematen zizkidaten. Orduan, maiatzean, artikulua idatzi eta Euskal Herriko egunkari guztietara bidali nuen. Deustuko unibertsitatean hurrengo urtean Euskal Filologia hasiko zela iragarri nuen artikuluan. Eta Jaungoikoari eskerrak halaxe hasi zen, 1978an Euskal Filologia sortu zen. Handik bi

urtera, Gasteizen hasi zen.

### ► Elgoibarren idazle gisa ezagutzen zaituzte. Nola hasi zinen idazten?

Nire lehen liburuak Marxismoari buruzkoak izan ziren, ikasketa garaikoak. Baina tarteka gustatzen zitzaidan literatura idaztea. Kajoian bi nobela eta ipuin bilduma bat neuzkan. Hiru txapelketatara bidali eta hirurek irabazi zuten lehenengo saria. Eztabaidak egoten dira sariak onak diren... baina gauza bat denei entzuten diet, sari bat hartzeak bihotza altxatu egiten du pixka bat. Nire kasuan ere hala izan zen.

### ► Zergatik jo duzu Baserrietara?

Atzerrian, eskolak alemanez eman eta euskaraz pentsatzen nuen. Baina hizkuntza moteldu egiten da egunero erabiltzen ez bada. Euskal Herrira berriz baserrietara joan behar nuela pentsatu nuen. Baserriarren euskarak hiru gauza ditu: erraza da, aberatsa eta tradizioari eutsia. Jakobsonek esaten zuen igorlearen eta hartzailearen arteko komunikazioa badago ezin dela esan hizkuntza gaizki dagoenik. ÓAmari eraman diotÓ egitura gaizki dago tradizioa apurtzen duelako baina ezin da hizkuntza gaizki dagoela esan mezua ulertzen delako, izan ere, hizkuntzak elkar ulertzeko dira. Alde horretatik baserriarrek tradizioa gorde dute.

### ► Euskalkiak eta Euskara Batua. Batasuna ala norgehiagoka?

Lehenik eta behin, nire ustez Euskaltzaindiak lan bikaina egiten du. Bigarrenik, ordea, ez dut uste bien arteko konpondu ezinik dagoenik. Euskara Batua lege batzuk ematen dizkigu, aztertu ondoren. Baina esamoldeak eta eserak erabili behar dira. Norberak bere herriko euskara txertatu behar du Euskara Batuan. Ni %100 euskalkien aldekoa naiz baina idatzian Euskara Batua erabili behar dela uste dut denentzat delako.



## ”NORBERAK BERE HERRIKO EUSKARA TXERTATU BEHAR DU EUSKARA BATUAN”

### ► Euskal Filologian euskaraz gaindiko gai asko dago.

Nik beti esaten nien unibertsitatekoiei, Euskal Filologiak izan behar duela tresna, pertsona batek ikasketa hauek bukatzerakoan euskararen ongien jantzi-ta egon dadin. Baina beste filologietako irakasleak sartzeko bidea ere izan da. Hemen injustizia handia dago, euskaldunei ikasgaien %8 bakarrik ematen zaie euskaraz, espainolei %100. Ni ez nago haien aurka baina gurea injustizia da.

### ► Zer esango zenioke Euskal Filologia ikastekotan dagoenari?

Euskara ikasi daiteke lana bilatzearen, eta beharrezkoa da bizitzan. *Primeum*

*vivere et posteam filosofare* dio orain 2000 urte baino gehiagoko esarak. Baina niretzat inportanteagoa da herri batean bizi eta bertako hizkera jakitea. Euskal Herrian bizi eta euskaraz jakin gabe bizitzea izugarria da, immigrazioa gorabehera, beti izango zara eta arrotza. Herri bateko hizkuntzak bertakotu egiten zaitu. Euskal Filologia eginda zazpi alderdietatik izango zara euskalduna. Lehendik baldin bazara ere bai, baina horrek gure hizkuntzaren jakinduria ematen dizu. Gainera, euskararen alde ari direnek bizipoza daukate, herriaren alde ari direlako.

► **Nola ikusten duzu euskararen etorkizuna?**

Beharrezko ez diren hizkuntzak larri ibiliko dira. Nik garai batean behar bada gauzak argiago ikusten nituen. Orain ikusten dut euskarak benetan arrisku handia daukala. Eta ni oso kezkatuta nago orain sartu den modarekin, euskaraz dakiten gazteek erdaraz egiten dute. Moda horiek hizkuntza galtzeko modukoak izan daitezke. Hori itzuli eta beste aldera eramaten ez badugu, hau da, dakienak euskaraz egiten ez badu, galduta gaude. Euskaraz dakiten gazteek euskaraz egitea da garrantzitsua. Etorkizuna hor dago.

► **Defini itzazu zure liburuak.**

Marxismoaren gainekoak: garai hartan gaztediak zeukan kezkari emandako erantzuna; gizarteko problemak. Literaturaren ildokoak: hobby bat. Nik beti izan dut literaturan egiazkoa idazteko joera. Zientzia fikzioa ez zait gustatzen, nahiago dut mundu erreala.



**Familiarekin ateratako argazkiak.**

Gizarteko eleberririk: oso gutxi eza gutzen dituzte baina literatura balio aldetik behar bada onenak dira. Problema serioak aztertzen dituzte, familiako problemak.

Erreportajeak: asko ibili naiz, Indian 5 hilabete, urtero New Yorken, Moskun bizi izan naiz, Afrikan. Museotara joaten naiz baina inportanteena jendearekin hitz egin eta beraien problemak ikustea da niretzat.

Literatur kritika: Euskal Filologiako irakasle izan nintzeneko lanak dira.

Hizkuntzalaritza: Nire bihotzeko maitasuna, euskara biziki maite dudalako. Euskaraz ondo nola egin landu dut. Euskarari, nire bizitzaren ardatza izan den gauzari, laguntzea da.

► **Azken lana, Atsotitzena, Euskararen altxor gisa geratuko da betiko**

Estandarra da. Nik atsotitzak jende zaharren ahotik bildu ditut. Altxor hori ezin dugu galdu. Lan honen meritua hori da, baserrietan jende nagusiari bil-

dukakoa dela. Atsotitzak oso aberatsak dira. Gainera, filosofia handia dago atsotitzetan, esanahia oso zentzuzkoa da. Lanean zazpi probintzietako atsotitzak daude eta lau hizkuntzetan dagoenez, atzerrian ere oihartzuna izan du.

► **Gustuko duzun esaera bat:**

Barnes&novel liburu-dendan aurkitu nuen ingelesez: *ÒThe basque is facefullÓ* (Euskalduna hitzekoa da). Erdi Aroan, ingelesak eta euskaldunak burdinolak zirela-eta harremanetan zeuden. Euskaldun batek erositako unean ordaindu ezin zuela eta bi hilabeteren buruan ordainduko zuela esaten bazuen, bi hilabetera agindutakoa betetzen zuen. Gertaera hori esaera bihurtu zen.

► **Amaitzeko, ezer esango al zenieke elgoibartarrei?**

Elgoibarko euskara oso ona dela eta eutsi, gorde eta erabiltzeko, eta ahal duten neurrian jasotzeko.



**Gotzon Garateren gaztetako argazkiak.**



### OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36
<b>GARRAIOAK</b>	
Eusko Trenbidea	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

### UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

### BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

### ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

### IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
<b>Institutua</b>	

Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73
El Correo Español	943 74 10 82
Zazpiki irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

## Farmazia - okindegia

### EGUNEZ

5	Ibañez
6	Bidasolo
7	Bidasolo
8	Bidasolo
9	Fernandez
10	Yudego
11	Zabaleta
12	Etxeberria

(Errosario kalean)

### GAUEZ

Ibañez
Bidasolo
Bidasolo
Bidasolo
Fernandez
Yudego
Zabaleta
Etxeberria

### FARMAZIAK

**ESCALA**, Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

### FERNANDEZ,

Herriko enparantza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

**ZABAETA**, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

### OKINDEGIA

**6 larunbata** Doña Mercedes

**7 igandea** Eizagirre

**8 astelehena** Foteró

## EuskoTren

### DONOSTIA-BILBO

Egunero

Donostia AMARA 5.45 06.45... 20.45

Elgoibar 07.02 08.02... 22.02

\* jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

### MENDARO-ELGOIBAR

Egunero

Mendaro 07.50 08.50... 21.50

## EuskoTren

AUTOBUSAK

### BILBO-DONOSTIA

Egunero

Bilbo 06:00 7.00... 20.00

Elgoibar 07.23 08.23... 21.23

\* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

### ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan

Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jaiegunetan

Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

### ELGOIBAR

SIGMA ● ———— ● ARRIAGA

#### SIGMA - ARRIAGA

8:00	8:10
9:25	9:35
11:10	11:40
11:20	11:50
12:10	12:40
12:20	12:30
13:10	13:20
13:20	13:30
18:20	18:30
19:10	19:20

#### ARRIAGA - SIGMA

8:10	8:20
9:55	10:05
11:10	11:20
11:40	11:50
12:10	12:20
12:40	12:50
13:10	13:20
18:10	18:20
19:00	19:10





*Gernika-Lumoko Segundo Olaeta Musika Eskolako zuzendaria da Mari Jose Ribate (36 urte) duela 8 urtetatik. 15 urte zituela joan zen Gernikara bizitzera, baina sarritan itzultzen da Elgoibarrera, hemen baitauka familia, eta koadrila ere mantentzen duelako. Goi-mailako musika ikasketak eginak ditu eta pianoa jotzen du, baina ez da hau elkarrizketa honen arrazoia. Mari Josek zuzentzen duen musika eskolak "Zergatik ez?" ipuin musikala sortu du eta horrek bultzatu gaitu beregana jotzera. Durangoko disko eta liburu azokan aurkeztuko dute liburua eta abenduaren 20an, berriz, Bilboko Euskalduna Jauregian estreinatuko dute ikuskizuna. Musika eskolako 135 haurrek hartuko dute parte antzerkia, koruak eta instrumentuak uztartzen dituen ikuskizunean.*

# MARI JOSE RIBATE

## "Euskal mitologian oinarritutako ikuskizun artistiko musikala sortu dugu"

### ■ "Zergatik ez" izeneko ipuin musikala sortu duzue.

Bai. Euskal mitologian oinarritutako ikuskizun artistiko musikala prestatu dugu, haurrei eta familia osoari zuzendua. Ipuin musikalen generoan kokatzen da. Lau zatitan banatu dugu ikuskizuna eta tartean musika ekitaldiak txertatu ditugu. Orohar, antzerkia, koruak eta instrumentuen musika uztartzen dituen ia ordubeteko ikuskizun osoa prestatu dugu.

### ■ Nola bururatu zitzaizuen ideia?

Duela urtebete izan zen. Batetik, musika eskoletan sortutako gauzek kalera iritsi behar dutela uste dugu, eta bestetik, haurren eskaerak aldatzen ari dira. Nahiago dute ÒShin ChanÓ eta antzerakoak abestea. Hori primeran dago, baina euskal musika galtzeko arriskua dago. Euskal musika oso tradizionala da eta aspergarria izan daiteke ikasle eta irakasleontzat. Zerbait berritzailea behar zela ikusirik, garaietara hobeto moldatzen zen zerbait egitea erabaki genuen, betiere helburu hezitzailea kontutan izanik.

### ■ Hasierako ideia zabaltzen joan zen, ezta?

Bai, ipuin musikala bat sortzea zen oinarritzeko ideia, baina elkarrekin lotura duten 3 bide hartu ditu. Haurrei zuzendutako ipuin bat argitaratzea posible zela ikusi genuen. Durangoko liburu azokan kaleratuko dugu lehen aldiz. Azkenik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek eta irakasleek erabiltzeko liburu tekniko bat prestatu dugu. Bertan, ipuin musikala zehatz-mehatz nola antzeztu azaltzen da.

### ■ Zein da ipuinaren argumentua?

Gurasoek galarazi arren, baso batean sartzea erabakitzen duten 8 haurren istorioa da. Basoan pertsonaia gaizto eta ilunei aurre egin beharko diete. *Moraleja* bat du: gurasoei kaso egin behar zaiela. Gaur egungo haurrek euskal ohiturez eta tradizioez gehiago jakin zezaten berreskuratu ditugu euskal pertsonaia mitologikoak eta XXI. mendeko istorio batean txertatu. Musikari dagokionez, 4 abesti nahi genituen beste hainbat estilotan; rock-a, zortzikoa, balada eta herrikoia. Txalaparta eta alboka moduko instrumentuak ere sartu ditugu.

### ■ Hiru amaiera prestatu dituzue.

Bai, urteko edozein arotan antzeztu ahal izateko aro bakoitzeko pertsonaia mitologikoak sartu ditugu. Eguberrian antzezten bada Olentzero agertzen da. Inauterietan, berriz, Ituren-Zubietako ÒjoaldunakÓ, Markinako ÒMartintxoakÓ, Lantzeko ÒMiel-OtxinÓ, Mundakako ÒAtorrek eta LamiakÓ, Lesakako ÒZakuzarrakÓ, Lapurdiko ÒKotilungorriakÓ eta Arizkuneko ÒHartzaÓ ageri dira. Azkenik, uda hasieran antzeztu nahi izanez gero, San Joan bezperako akelarreko pertsonaia; sorgin eta aztiak, ager daitezke eskualde bakoitzeko ohituren arabera.

### ■ Bilbon aurkeztuko duzue jendaurrean estreinakoz?

Segundo Olaeta Musika Eskolako 135 haurrek hartuko dute parte Bilboko Euskalduna Jauregian abenduaren 20an egingo den estreinaldian. ETBk saioa grabatuko du, baina ez dakigu noiz emitituko duen.

### "Bilboko Euskalduna Jauregian estreinatuko dugu ikuskizuna abenduaren 20an"

## Luziano margolariaren erakusketa izango da ikusgai gaurtik abenduaren 19ra arte Kultur Etxeko erakusketa gelan


Azken urteotan eginiko 15 koadrok osatuko dute erakusketa

**L**uziano margolari elgoibartarrak, bere azken lanen erakusketa egingo du, gaurtik, datorren abenduaren 19ra arte. Arte zaletuek astelehenetik larunbatera arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, eta jai egunetan eguerdiko 12:00etatik 14:00etara bisitatu ahal izango dute erakusketa.

Azken urteotan eginiko 15 koadro egongo dira ikusgai, eta horien artean, Elgoibarko ingurune fiktizio bat islatzen duen lana ikusi ahal izango da. Luzianok esan digunez, ez da benetako lekua, Elgoibarko izpiritua islatzen duen koadroa omen da: ÒEz da Elgoibarko toki erreala, baina jende guztiak nabaritzen du koadro horretan ageri den irudia Elgoibar dela.

Luzianok paisaiak marrazten ditu batez ere, eta toki guztiak asmatutakoak dira. Luzianoren koadroetan teknika mistoa da nagusi, berak esan digunez, amets itxura ematen dio teknika honek koadroari, konfusio ukitu berezi bat.

Kolore suabeak, ikusiko dira bere koadroetan. Luzianok azaldu digunez, gero eta kolore gutxiago erabiltzen ditu bere koadroetan, kolore okreak dira nagusi.



Luzianoren irudia eta azpian berak margotutako "Valentincho" koadroa.



### Margolari sena txikitatik

Lucio Ruiz Poveda ÒLuzianoÓ 1931. urtean jaio zen Elgoibarren. Gerra Zibila zela eta, Bilbora joan behar izan zuen sei urte zituela, eta handik Frantziara. 1940an itzuli zen, eta orduantxe piztu zitzaion artearekiko zaletasuna. Elgoibarko Arte eta Lanbide Eskolara joaten hasi zen, eta 19 urte zituela, hasi zen bere benetako artista karrera.

Asko bidaiatu du Luzianok. Parisera bisita ugari egin ditu, eta luzaroan egon zen bertan bizitzen. Montmatren jardun zuen margotzen, eta estudio txiki bat ireki zuen bertan.

1955ean Madrilera joan zen bizitzera.

Espainiako herriekiko maitasunak bultzatuta, ia estatu osoa zeharkatu zuen. Ibilaldi haietan jaso zituen bere artelanak osatzeko erabili dituen gaiak: etxebizitzaren fatxadak, kale zuloak, portuakÉ Bestalde, Maroko, Estatu Batuak, Kanada, Mexiko eta India ere bisitatu ditu Luzianok.

Gaur egun, bi galeria ditu, bata Madrilan eta bestea Zarautzen. Madrilera urte osoan zehar erakusten ditu bere lanak, Zarautzen berriz, udan.

## Esmeralda Zaparoli argazkilaria Guadalajarako "Urrezko Erlea" lehiaketan saritua izan da



Edu Arrillaga

**A**rgazkigintzan egiten den lehiaketarik garrantzitsuenetakoa da ÒUrrezko ErleaÓ Espainia mailan, eta Esmeralda Zaparoli XLVIII. edizioako irabazleetakoa bat izan da. Venezia hiriko sei argazkiz osatutako bilduma aurkeztu zuen Esmeralda Zaparolik lehiaketan, eta Argazkigintzako Espainiar Konfederazioaren domina jaso zuen.

Esmeralda Zaparoli Italiako Venezia hiriri buruzko lan berezi bat egiten ari

da. Venezia beti erakutsi dizkigun topikoak alde batera utziz, turismotik ihes egiten duten txokoak islatu nahi ditu bere argazkietan. Kale zaharrak eta txoko ezkutatuak, hiria eta bertako biztanleak dira Esmeraldaren argazkietako protagonistak.

Aurrerantzean, Venezian bertan erakusketa bat antolatu eta Italiako hiriarren argazkiz osatutako liburu bat argitaratzea gustatuko litzaioke.

## Oleg Korneev errusiarra da, abenduaren 3an hasi zen Nazioarteko Xake Txapelketa irabazteko faborito nagusia

Abenduaren 12an amaituko da txapelketa

**P**asa den eguaztenean, abenduaren 3an, hasi zen Elgoibarko XIII. Nazioarteko Xake Txapelketa. Nazioarte mailako 10 xakelari ari dira parte hartzen Euskadiko Xake Federazioak eta Elgoibarko Kirol Patronatuak Zubi Ondo Xake Elkartearen laguntzaz antolatzen duten txapelketan. Partidak egunero jokatu dira Kultur Etxean 17:00etatik 22:00etara, abenduaren 12ra bitartean.

Oleg Korneev errusiarra, iazko irabazlea, da irabazteko faborito nagusia. Errusiarrek 7 aldiz hartu du parte Elgoibarren eta azken hiruetan jantzi du txapela. Aurten, Benasqueko Nazioarteko Txapelketa



Xake Txapelketako partaideak eta antolatzaileak aurkezpenean.

irabazi du. Dena dela, arerio gogorrak izango ditu, tartean Santiago Gonzalez, I-igo Argandona eta Mario Gomez euskaldunak, hirurak ere Euskadiko selekzioko kideak. Gomez bizkaitarra da

Korneev-ekin batera Elgoibarko txapelketa irabazi duen parte-hartzaile bakarra. Hauekin batera Rodney Perez kubarra, Horacio Salda-ó argentinarra, Dragan Paunovic serbiarra, Stuart Conquest ingelesa eta Roberto Cifuentes eta Manuel Perez espainiarrak arituko dira nor baino nor. Guztiek dute maisu handi edo nazioarteko maisu kategoria. Aukera paregabea beraz, xakelaririk onenak gertutik ezagutzeko. Txapelketaren

aurkezpenean gehienak ados izan ziren Elgoibarrera gustura etortzen direla azaltzean. Maila altuko txapelketa izateaz gain, jasotzen duten tratu atsegina azpimarratu zuten aurrez

## Bakio eta Gorliz inguruko itsasbazterrak ezagutu zituzten 28 herritarrek Morkaiko Mendizale Elkartearekin

Bestalde, argazki Lehiaketaren erakusketa abenduaren 12an hasiko da

**2**8 lagunek egin zuten Bakio-Armitza-Gorliz travesia pasa den azaroaren 30ean. Morkaiko Mendizale Elkartetik adierazi digutenez, izena eman zutenak baino gutxiago azaldu ziren irteerara, Òeuriaren beldur batzuk eta gripearen erruz bestek, baina joandako gehienak oso gustura itzuli ziren etxera. Bizkaiko itsasertzeko parajerik ederrenetarikoa izan ziren, baina lainoak ez ziren paraje hauek bere osotasunean miresten laga eta askok itzultzeko intentzioa azaldu zuten.

### "Metala" gogoratuz

Ibilbideari dagokionez, Bakiotik Armintzara abiatu ziren eta bidean "Jata"



mendia igo zuten. Bertatik Bizkaia guztia ikusteko aukera izan zuten. Leku paregabea aprobetxatuz, hil berri den Julian Zubiaurre ÒMetalaÓ mendizale eta Morkaikoko bazkidea gogoratu zuten.

Eukaliptuz inguratutako bideari jarraituz, Lemoako zentrala atzean laga eta Armintza herri txikira ailegatu ziren. Bazkal ostean itsasoa begi paretik galdu gabe Gorlizerraino iritsi ziren mendizaleak 7 orduko ibilaldia burutu ondoren. Morkaikoko egungo zuzendaritzak antolatutako azkenaurreko irteera izan zen. Urteari amaiera emateko abenduaren 31n Aizkorriera egiten den irteera izango da azkena eta datorren urtetik aurrera beste gazte talde batek hartuko du Morkaikoko zuzendaritza. Bestalde, Mendiko Argazki Lehiaketan aurkeztutako lanekin egiten den erakusketa abenduaren 12an hasiko da Kultur Etxean.



## Patxi Arriola txapeldun Euskadiko Oilagor Ehiza Txapelketan

Espainiako Oilagor Ehiza Txapelketa Galizian jokatu da abenduaren 20an

**B**egia non, bala han dabilta ehiztari elgoibartarrak azken aldian. Pasa den astean Txomin Rogel eta David Conde Euskadiko Ehiza Xeheko txapeldun eta txapeldunorde zirela, azaldu genizuen orriotan. Patxi Arriolak ez du gutxiago izan nahi izan eta Euskadiko Oilagor Ehiza Txapelketako txapela jantzi zuen pasa den azaroaren 30ean. Parte hartzaileak, 11 guztira, Gipuzkoa eta Nafarroa arteko muga dagoen Leizaran bailaran aritu ziren ehizan. Lehen hiru sailkatuek oilagor bana ehizatu zuten eta ez zen ehiza gehiagorik izan. Ehizatzeko behar izan zuten denborak erabaki zuen txapelduna. Bizkaiko ordezkari bat sailkatu zen bigarren eta Patxi Etxebeste oiartzuarra hirugarren. Oilagor gutxi ehizatu arren, basabizitza ugari dagoela Leizaranen aitortu digu Arriolak, ÒGipuzkoako mendirik basatixenak dia, gizakixak esku gitxi sartu dau eta todoterrenuakin ere ozta-ozta ailegau ginan. Basurdiak eta oreinak ikustia ez da batere zaila. Garaipen honi esker datorren urteko Euskadiko Txapelketan zuzenean parte



Aitor

hartzeko aukera lortu du Arriolak eta abenduaren 20an, berri, Espainiako Oilagor Ehiza Txapelketan hartuko du parte Galizian.

## Jende mordoak bildu zen Iban Mayoren hitzak entzuteko



I igo Larizek egin zituen moderatzaile lanak Iban Mayok eskainitako hitzaldian .

**E**uskaltel Euskadi txirrindulari taldeko Iban Mayo txirrindulari bizkaitarrak hitzaldia eskaini zuen pasa den azaroaren 28an, Elgoibar Bigarren Hezkuntzako Institutuan. Bernardo Ezenarroko hitzaldi gela txiki geratu zen eta hiru txandatan banatu zuten ekitaldia, Alpe D«Huezeko garailearen etorrerak ikusmin izugarria sortu baitzuen. I-igo Lariz Ulma-Cegasa afizionatu mailako txirrindulari elgoibartarrak egin zituen moderatzaile lanak eta ikasleek egindako galderak luzatu zizkion Mayori. Txirrindulariak pazientzia handiz erantzun zituen guztiak.

### EMAITZAK

#### Futbola

Haundi 1 Zarautz 1 (Pref.)  
Eibartarrak 1 Elgoibar 3 (1. erreg.)  
Elgoibar 7 Aæorga 0 (Jub.)  
Urola 1 Elgoibar 9 (Kad.)  
Sporting 2 Elgoibar 1 (Inf.)  
Eibar 5 Elgoibar 5 (Aleb.)  
Elgoibar 0 Lagun Onak 2 (Neskak)  
Elgoibar 4 Antzuola 0 (Neskak F-8)

#### Esku pilota

Gipuzkoako Txapelketa  
Lagunak A 22 Aæorga 18 (Nag.)  
Aretxabaleta 11 Lagunak B 22 (Nag.)  
Lagunak 22 Hernani 20 (Jub.)  
Lagunak A 22 Bergara 4 (Kad.)  
Ilunpe 22 Lagunak B 10 (Kad.)  
Eskoriatza 18 Lagunak 8 (Inf.)

#### Areto Futbola

Indautxu 3 - Kenci Elg. 7 (Nazional B)  
Lanbroa 5 Antxeta 4 (2. maila)  
Magefesa 4 Tomas Mingot 3 (Jub.)  
Lojantzi 2 Larramendi 7 (Jub.)

#### Eskubaloia

Aæoæa Mendi 23 Pagoaga Elg. 23 (Kad. neska.)  
Tecnomeca Elg. 14 Zarautz 33 (Kad. mut.)  
Aloæa Mendi 19 Cometel Elg. 20 (Jub. neska.)  
Pneumax Elg. 19 Zarautz 27 (Jub. mut.)  
ANTT Softlan 29 CAF Beasain 24 (Sen. mut.)  
Portugalete 26 Tecnifuelle Elg. 29 (Sen. mut.)

### AGENDA

#### Areto Futbola, Kiroldegian

Domekia, 7  
11:00 Magefesa Bilbo GSI (Jub.)  
12:30 Kenci Elg. Rioja Bizkai (Nazional B)

#### Futbola, Mintxetan

Zapatua, 6  
10:30 Elgoibar Mutriku (Aleb.)  
12:15 Elgoibar Urola (Inf.)  
16:30 Elgoibar Mutriku (1. erreg.)  
Domekia, 7  
11:30 Elgoibar Eibartarrak (Kad.)

#### Esku pilota

Barixakua, 5  
22:00 Lagunak A Lazkao (Nag.)

## Lana

### ESKAERA

- ◆ Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Fijo edo asteburuetan. ☎ **626 91 49 04**
- ◆ Neska eskalduna igande eta jai egunetan nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. ☎ **616 53 37 96**
- ◆ Emakumea etxeko lanak edo garbiketara lanak egiteko prest. Egun solteak. ☎ **943 74 22 01**

### ESKAINITZA

- ◆ Mutil gaztea behar da larunbatetan tabernako ateetan lan egiteko. ☎ **670 25 04 29**
- ◆ Asteburuetan goxoki denda batean lan egiteko neska behar da. ☎ **656 73 28 20**
- ◆ Osintxuko jatetxeak, jantokian lan egiteko kamareroa behar du. Asteburuak libre. ☎ **943 76 48 63 (Josebe edo Juana)**
- ◆ Kamareroa behar da. ☎ **943 74 42 65**
- ◆ Emakume bat behar da uume bat zaindu eta etxekolanak egiteko. Gaueko 8etatik aurrera. ☎ **687 273 171**

## OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## Salerosketak

- ◆ Trabesiako piragua salgai. 5,40 metroko luzera. 600 euro. ☎ **943 03 35 58**
- ◆ Peugeot 205 gasolinazkoa salgai. Egoera oso onean. ☎ **943 74 32 94**
- ◆ Kotxe zaharra salgai. Diesela. Erosleak jarriko du prezioa. ☎ **686 48 10 68**
- ◆ Newpool markako labadora salgai. 10 hilabetekoa. Garantian dago. ☎ **943 74 22 01**
- ◆ Seat Toledo 2000i. salgai. 250.000 pzta. ☎ **656 78 98 82**
- ◆ Opel Corsa 1.2 autoa salgai. 3 ate, beltza. SS-5560-AF ☎ **943 74 07 12**
- ◆ Harategiko barrak (altzairu inoxidablea) eta trangadera salgai. ☎ **943 74 01 22**
- ◆ Chrysler voyager 2.5 Lx CRd salgai. 2001ekoa. 33.261 km. ☎ **943 74 34 00**
- ◆ Honda Shadonn motorra salgai. 600cc. Prezio onean. ☎ **635 72 00 91**
- ◆ Opel Kadett 1.800i GT. salgai. Oso merke. 660 euro. ☎ **635 72 00 91**
- ◆ Bi eskopeta salgai. Paraleloak. Bata usotarako eta bestea oilagorretarako. ☎ **943 74 00 79**
- ◆ Audi 100 autoa salgai. Diesela. 900 euro. ☎ **94 620 39 45**
- ◆ Citroen ZX 1.6i, 90 zaldi, salgai. 6 urte. Airbag, irratikasettea, ispilu elektrikoak, kristal beltzak, Saxoaren llantak, selex amortiguadoreak... ☎ **659 554 564**

## Etxebizitzak

- ◆ Etxea salgai herri erdian. 3 logela, amueblatua, berritua, bizitzera sartzeko moduan. ☎ **661 42 60 77**
- ◆ Pisua salgai Deban. ☎ **619 24 17 08 (Marisol)**
- ◆ Logelak alokatzen dira San Roke auzoan. Sukaldea erabiltzeko aukera barne. ☎ **943 74 88 53**
- ◆ Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **626 91 49 04**
- ◆ Pisua salgai Basarte kalean. Altzariekin. Oso polita. ☎ **678 62 73 97**
- ◆ Apartamenduak alokatzen dira Torre del Mar herrian (Malaga). Urte osoan zehar. ☎ **659 26 10 84**
- ◆ Buardila salgai. Bi logela eta trasteroa. ☎ **630 87 00 54**
- ◆ Bikote batek pisua hartuko luke alokairuan. Ez dadila oso garestia izan. ☎ **615 72 54 19 (Leire)**
- ◆ Pisua salgai Ubitarte Plazan. Dena kanpora begira, eguzkitsua, 62m<sup>2</sup>. Bikote batentzako aproposa. Dena berritua. ☎ **696 74 91 59**

## Bestelakoak

- ◆ M.F. iniziladun urrezko madaila galdu da. Eskertu egingo da. ☎ **696 60 84 85**
- ◆ Lau urteko dalmata txakurra oparitzen da. Txipa dauka. ☎ **636 390 808 (Manoli)**
- ◆ Belarritako bat galdu dut Arregitorretik Haurtzaindegira bitartean. ☎ **943 74 37 75**
- ◆ Kanarioak ihes egin digu etxetik. Hilarren 18tik dago desagertuta. Txuria da. ☎ **626 38 54 53**
- ◆ Katu persa oparitzen dut. 3 urte ditu. ☎ **636 52 38 03**

## Garajeak

- ◆ Garajea alokatzen dut. ☎ **943 74 18 81**
- ◆ Kirolegei ondoan bi garaje salgai. ☎ **626 60 71 55**

## Partikularrak

- ◆ Euskarazko klaseak emateko irakasle partikularra behar da. ☎ **696 96 40 69**



## ANTT CONSULTORIA

INMOBILIARIA

Antonio Arrillaga, 1 behea  
Tel.: 943 74 80 92

XXXXXXXXXX XXXXXXXX

XXXXXXXX

\* Aukera ezin hobea 20 millioitik aurrera

XXXX - XXXX

\* Azken Etxebizitzak!!!!

\* Lokalak

XXXXXXXXXX XXX XXXXXXXXXXXX XXXXXX

XXXXXXXXXX XXXXXXXX

XXXXXXXXXXXXXX

XXXXXX XXX: 3 logela, egongela, sukaldea, terraza

eguskitsua. Sartzeko modua. 169.000 .

XXXXXX XXX: 3 logela, egongela, sukaldea,

igogailua. Sartzeko moduan. 177.298,57 .

XXXXXXXXXX

Erdialdean: Marraduna. 21.000

Marraduna. 24,5 m<sup>2</sup>. 21.000

San Roke: Itxia. 15 m<sup>2</sup>. 22.900

Marraduna. 25 m<sup>2</sup>. 21.000

San Roke: Alokairuan. 54 / hileko

Urasandi: Itxia. 27m<sup>2</sup>. 33.055,67

Urasandi: Lokala. 90 m<sup>2</sup>. 66.000

## Agurrak



♦ Zorionak **Nahia!** Guretzat ere egun haundixa da abenduaren 6xa, bai horixe! Bat, bi eta... hiru urte! Urte askotarako! Ait-xitxa, amama eta tio.



♦ Zorionak **Nagore Fernandez Armendiari**, familiako guztien eta bereziki, zure ahizpa Nerearen partez.



♦ Zorionak **Iker**, abenduaren 3an, 4 urte bete zenituelako. Familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Ion**, zure 6. urtebetetzean. Ikus dezazun zu ere Irati bezain txikia izan zarela. Pepi, Anton, Angel eta Israelen partez.



♦ Zorionak **Julen**, bere bigarren urtebetetzean. Ane, Nora, Andrea eta etxeko guztien partez.



♦ Zorionak **printzesa**, bihotz-bihotzez! Jadanik bete dituzu 16 urte. Baita zuri ere, aitxixa Cipriano. Familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Iñigo**, abenduaren 3an, 5 urte bete zituelako. Familiako eta bereziki, Noraren partez.



♦ Zorionak **Iker**, datorren abenduaren 9an, 3 urte beteko dituzulako. Gurasoen, eta batez ere, Jonen partez.



♦ Zorionak **Ane**, datorren hilaren 8an, 8 urte beteko dituzulako. Etxeko guztien partez.



♦ Zorionak **Gorka Alvarez**, abenduaren 6an, urtebete egin-go duelako. Osaba-izeba eta aiton-amonen partez.



♦ Zorionak **Aitor**, abenduaren 3an, 11 urte bete zenituelako. Muxu handi bat guztion, eta bereziki, lbonen partez.

♦ Zorionak **Olatz**, joan zen azaroaren 24an, 15 urte bete zenituelako. Segi beti bezain guapa. Lagun berezi baten partez.

## IKASTAROAK

### Zinema Tailerra

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak partaidetzarako zinema-tailerrak antolatu ditu, Donostian abenduaren 10 eta 11n, eta Bilbon abenduaren 18 eta 19an. [www.egk.org](http://www.egk.org). Epea: plazak agortu arte

### Giza baliabideak

Haurralde Fundazioak Gipuzkoako gizarte-erakunde desberdinetan parte hartzen duten pertsona, boluntario, zuzendari, eta abarrei zuzendutako sei orduko Giza Baliabideen Kudeaketa Ikastaroa antolatu du. Ikastaroa Ordizian izango da abenduaren 16 eta 17an. Epea: abenduak 16

### Adineko pertsonak

Kutxa, Bergarako Uned eta Hezkide Eskolak adineko pertsonekin lan egiten duten edo esparru honetan lan egin nahi duten pertsoneri zuzendutako Oadineko pertsonekin lantzeko gizarte-trebetasunen tailerra antolatu dute. Tailerra Bergarako UHUn izango da urtarrilaren 13tik 29ra, 18:00etatik 20:00etara. Epea: abenduak 12

## LEHIAKETAK

### Argazkiak

Errenteriako Udalak X. Oimagen LatenteO argazki-lehiaketa antolatu du. Bertara nahi duten autore guztiek aurkez ditzakete euren lanak, gehienez ere, argitaratu eta saritu gabeko gai libreko bost argazki. 720 euro saritan. Epea: abenduak 12

### Ipuinak

Muskizko Kultur Etxeak XVIII. Lope Garcia de Salazar ipuin-lehiaketa antolatu du. Ipuinek 12 orrialde baino gutxiagoko luzera izango dute, gaia askea izango da eta parte-hartzaile bakoitzak gehienez ere hiru lan aurkeztu ahal izango ditu. Epea: abenduak 19

## LANA

### Zoologoa

Bergarako Udalak zoologo lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa antolatu du. Baldintzak: biologiako lizentziatu-titulua, zoologiako espezialitatearekin eta euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: abenduak 17

### Kimikaria

Bergarako Udalak kimikari lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa antolatu du. Baldintzak: kimikako lizentziatu-titulua eta euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: abenduak 17

### Irakasleak

Nafarroako Gobernuak ondorengo ikasgaiak irakatsiko dituzten irakasleak aldi baterako kontratatzeko deialdia egin du: euskara, ingelera, entzumena eta hizkuntza, haur hezkuntza, frantsesa, gizarte-zientziak, soin hezkuntza, gaztelera eta literatura, musika, matematikak, natur zientziak, pedagogia terapeutikoa. Epea: abenduak 12



## 5 BARIXAKUA

**19:00 LUZIANOREN MARGOAK  
ERAKUSKETAREN  
INAUGURAZIOA**

Kultur Etxeko Erakusketa gelan  
Abenduaren 21era arte



**22:30 ANTZERKIA**  
"La puta en el manicomio"  
Taldea: Imagina que no  
Gaztetxean

## 6 ZAPATUA

**18:30 KONTZERTUAK**  
Taldeak: "Lor" (Elorrio), "Asta l« kuello"  
(Avila) eta "Kualkier kosa" (Avila)  
Gaztetxean

## 12 BARIXAKUA

**21:00 XIII. NAZIOARTEKO XAKE  
TXAPELKETAREN SARI  
BANAKETA**

Kultur Etxeko hitzaldi gelan  
Antolatzailea: Udal Kirol Patronatua eta  
Euskadiko Xake Federazioa

**19:00 MORKAIKO MENDIZALE  
ELKARTEAREN ARGAZKI  
ERAKUSKETAREN  
INAUGURAZIOA**

Abenduaren 21era arte  
Antolatzailea: Morkaiko Mendizale  
Elkartea



**22:15 ANTZERKIA**  
ÒLas mujeres de verdad tienen curvasÓ  
Taldea: Ados Teatroa  
Herriko Antzokian

## ANTZERKIA

**ÒLas Mujeres de verdad tienen curvasÓ**  
Datorren ostiralean, abenduaren 12an, ÒLas Mujeres de verdad tienen curvasÓ antzerkia izango da Herriko Antzokian, gaueko 22:15ean. Antzezlan honetan 5 emakume hegoamerikar gizenen istorioa kontatzen da. Edozein hiritako etorkinen auzo bateko jostun tailer klandestino batean egiten dute lan. Bizirik irauteko, buru belarri saiatzen dira beren lanean, ezinezkoak diren lan epeak betetzeko. Hau guztia, umore, ahalegin eta duintasunez pairatuko dute.

Antzerkirako sarrerak salgai daude dagoeneko, Udaleko Kultura Sailan.



## "Lara Croft Tomb Raider: La cuna de la vida"

Zuzendaria: Jan de Bont.  
Antzezleak: Angelina Jolie, Gerard Butler, Noah Taylor.  
+ 7 urte

Pandoraren kaxan gizateriak inoiz ezagutu dituen gaitz guztiak daude gorderik. Kaxa Afrikan dago ondo izkutatuta, Bizitzaren Sorburua deitzen duten lurraldean. Lara Croft ezinegonaren espezialitatea gorderik dauden gauzak berreskuratzea da eta oraingoan ere horixe izango da bere eginbeharra. Jonathan Reiss doktoreak baino lehenago berreskuratu beharko du kaxa. Nobel Saria irabazia duen arren, asmo ankerrak ditu doktoreak, bere jakituria erabiliz pandoraren kaxak duen boterea kontrolpean izan nahi baitu.

## IRTEERAK

### Lesakara In Leike-rekin

Mendaroko In Leike Taldea bostgarren urteurrena ospatzen ari da. Hau dela-eta, Lesakara mendi irteera antolatu dute abenduaren 12tik 14ra bitartean. Irteera barixakuan izango da 18:30ean Mendaroko estazio paretik. Prezioa 35 eurokoa da (25 euro ikasle eta langabetuek). Dirua In Leikek Kutxan duen kontuan sartu beharko da abenduaren 9a baino lehen. Mendiko arropa eta sakua eraman beharko dira eta kobazuloak bisitatu nahi dituztenentzat arropa zaharrak eta linterna bat eramatea gomendatzen da.

## JARDUNALDIAK

### Askatasun jardunaldiak

Elgoibarko Gaztetxeak askatasun jardunaldiak antolatu ditu astebururako. Globalizazioaren aurkako mugimenduen inguruko jardunaldiak izango dira. Gaur, barixakua, 22:30etatik aurrera 2.003ko ekainean Salonican (Grezia) eginiko manifestaldian atxilotutakoen egoera azaltzen duen bideo emanaldia izango da. Ondoren, ÒImagina que noÓ Antzerki taldeak Dario Fo dramaturgo eta Nobel Sari italiarraren ÒLa puta en el manicomioÓ antzezlana eskainiko du. Zapatuan, hilaren 6an, Elorrioko ÒLorÓ taldea eta Avilako bi hard-punk talderen kontzertuak izango dira 18:30etatik aurrera. Sarrera doan.

## LIBURUAK

### ÒDeba Behea: IbilbideakÓ

Elgoibarko Udalak ÒDeba Behea: IbilbideakÓ liburua jarri du salgai. Kultur Etxean eskura daitezke goizetan eta bost euro balio ditu liburuxka bakoitzak. Bertan Debabarrenan dauden ibilbide desberdinen berri ematen da.

## LEHIAKETAK

### Amodiozko Gutunen Lehiaketa

Amodiozko Gutunen XII. Lehiaketa eta II. SMS Bidezko Maitasun Mezuen Lehiaketa martxan dira jadanik. Lanak ( orijinala eta hiru kopia ) eta egilearen datuak dituen sobrea beste sobre handiago baten sartuta, honako helbidera bidali beharko dira: Amodiozko Gutunen XII. Berrigara Lehiaketa Jardun Elkarte, 103 PK 20570 Bergara e-mail: kulturajardun@topagunea.com. Horretarako azken eguna 2003ko urtarrilaren 8a izango da. Sariak honako hauek izango dira: lehenengo saria: 450 euro eta bigarren saria: 240 euro. Sari ematea otsailaren 14an, San Balentin egunean egingo da, Zabalotegi Aretoa, arratsaldeko 19:00etan. SMS Bidezko II. Maitasun Mezuen Lehiaketari dagokionez, Pertsona bakoitzak ezingo du mezu bat baino gehiago bidali. Mezuaren ostean telefono mugikorren zenbakia eta adina jarri beharko da. Mezuak jasotzeko epea mugatua izango da; urtarrilaren 1etik 15era. Mezuak jatorrizkoak eta euskaraz izan beharko dute. Mezuak honako telefono zenbakira bidali beharko dira: 605712469. Informazio eta xehetasun gehiago 606526810 zenbakian.



### ELGOIBAR, Herriko Antzokian

#### ÒEnigmaÓ

5, barixakua: 22:15

6, zapatua: 22:15

7, domekia: 19:30-22:15

8, astelehena: 19:30-22:15

#### ÒTomb Raider: Lara Croft La

#### Cuna de la VidaÓ

6, zapatua: 19:30

7, domekia: 16:30

### EIBAR, Unzaga

#### ÒMaster and CommanderÓ

5, barixakua: 19:30-22:15

6, zapatua: 17:00-19:30-22:30

7, domekia: 17:00-19:30-22:30

8, astelehena: 19:30-22:15

9, martitzena: 19:30-22:15

10, eguaztena: 19:30-22:15

### EIBAR, Rialto

#### ÒBuscando a NemoÓ

5, barixakua: 19:30-22:15

6, zapatua: 17:00-19:30-22:15

7, domekia: 17:00-19:30-22:15

8, astelehena: 19:30-22:15

9, martitzena: 19:30

10, eguaztena: 19:30

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien

aldaketen erantzukizunik.



## "Enigma"

Zuzendaria: Michael Apted.

Antzezleak: Dougray Scott, Kate Winslet, Saffron Burrows.

+ 7 urte

Robert Harris idazlearen izen bereko eleberrian oinarrituta dago. Bigarren Mundu Gerrako sekretupeko istoriorik handienetakoa du hizpide. Enigma, Alemaniarrek mezuak kodifikatzeko erabiltzen zuten makinaren izena da. Hamarkadetan isilpean gordeta egon ostean argitara eman diren gerrako sekretu horietako baten inguruko film honek interes eta eztabaida handia sortu zituen Ingalaterran. U-571 film amerikarrak kontatzen zuenari erantzuna ematen saiatzen da ingelesan ikuspegitik.

# ZINEA



# A

ste honetako erretratu zaharra herritar batek laga digu. Argazkia 1950. urteko San Bartolome jaietan aterata dago, Txiki Egunean hain zuzen ere. Argazki honetan, garai hartako koadrilek zezenetarako zeukaten zaletasuna islatzen da. Herriko gazteek astero-astero dirua aurrezten zuten San Bartolomeetarako, baina normalean, dirua, festak baino lehenago bukatzen zen. Koadrila honek suerte handia izan zuen, izan ere, Txiki Eguneko emanaldiagatik, Ricarda tabernan afaria ordaindu baitzion Udalak.

Gogoratu dezagun zeintzuk diren gazte hauek.

Zutik, ezkerretik eskumara: Jose Urrutia, Pablo Irureta, ?, Javier Alvarez (†), Sabin Garate (†), Celestino Belaustegi (†), Juan Jose Gorrotxategi ÒPlantiÓ eta Jose Artola ÒEl chico del ladrilloÓ.

Eserita, ezkerretik eskumara: Jose Mari Galdos (†), Basilio Larreategi, Sabin Arrieta eta Jose Zabalo (†).

Lurrean etzanda, ezkerretik eskumara: I-aki Gabilondo, Ignazio Loiola eta Jesus Mari Etxeberria.



*Lorea Etxabe Azkue*

2003ko azaroaren 26an hil zen  
30 urte zituela

*Edur zuritxan hazitxako  
lore gorrixa ziñan.  
Urtu eraitxen zendun  
inguruko hotza,  
eta bedarra hazi erain.*

*Ez dogu gehixao  
zure berua igarriko,  
baña hementxe gerauko da  
zure arnasia aztarnia,  
botatako sustraixen gañian.*

**Zure lagunak**



# UZTAR GI



*Mendaroko plazan 8:00etatik aurrera*



Gosariak  
Ogitartekoak  
Pintxoak  
Razioak

*Zatoz gu ezagutzera*

*larunbateko*

*Kontzesio azokan*



Herriko Enparantza, 8

Mendaro

Tel.: 943 03 01 50



# LAS MUJERES DE VERDAD TIENEN CURVAS

5 emakume hegoamerikar eta gizenen istorioa. Edozein hiritako etorkin auzo bateko jostera tailer klandestino batean egiten dute lan. Bizirik irauteko buru belarri egiten dute lan, baina lanak entregatzeko epeak bete ezinak dira. Guzti hau umore, ahalegin eta duintasunez pairatzen dute.



Abenduak 12  
22:15  
Herriko Antzokian



Sarrerak aurrez salgai Kultur Etxean

ANTZEZLEAK  
Lilliam Kouri  
Saskia Guanche  
Sara Cozar  
M<sup>a</sup> Isabel Díaz  
Yeyé Báez  
Edelweiss Hernández



KULTURA SAILA



FORU ALDUNDIA

